



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2021EKO MARTXOAREN 31N UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

26. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita bateko martxoaren 31n, arratsaldeko zazpitan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).
Angel M^a Etxeberria Ibarguren J. (EH BILDU).
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, Udal Idazkaria.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.

2021eko otsailaren 24ko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2021eko otsailaren 24an egindako bilkuraren akta onartzea aho batez erabaki du.

2.- 26. OINARTXO HEE-AREN PLAN PARTZIALAREN BIGARREN ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“LURRALDE ANTOLAKUNTZA, INGURUMENA, LANDA GARAPENA, OBRAK ETA ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

GAIA: BEHIN BETIKO ONARTZEA “26 OINARTXO HEEAREN PLAN PARTZIALAREN BIGARREN ALDAKETA” DOKUMENTUA

I.- TXOSTEN TEKNIKOA

Azkoitiko Udaleko Hirigintza, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuetako Departamentuko Arduradunak ondoan islatzen den txostena aurkeztu du:

Se redacta el presente informe en relación al documento de Segunda Modificación del Plan Parcial del sector 26 Oinartxo de Azkoitia, Documento de Aprobación definitiva, entregado con fecha de 17 de marzo de 2021 por parte de Marco Seguro, en representación de XUBI Large S.L.

I. ANTECEDENTES

El documento de Modificación del Plan Parcial recoge los siguientes antecedentes:

El Grupo Xubi es un grupo empresarial con una larga tradición en el mundo industrial y con sede en Azkoitia (Gipuzkoa). Se fundó en 1956 y empezó fabricando tuercas. Cuatro años más tarde empezó a fabricar engranajes y actualmente desarrolla un abanico cada vez más amplio de actividades.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Además de las instalaciones con las que cuenta en el polígono industrial Umansoro, donde se localiza su sede, el Grupo Xubi es propietario de la parcela V5 del sector industrial Oinartxo de Azkoitia, en la que ha llevado a cabo sus ampliaciones más recientes.

En septiembre de 2016, Xubi trasladó a la sociedad pública UrolakoIndustrialdea S.A. y al Ayuntamiento de Azkoitia su voluntad de adquirir la parcela V4 del sector Oinartxo (entonces propiedad de UISA) y de unir ambas parcelas configurando una parcela industrial única, al objeto de contar con una reserva para poder desarrollar sus proyectos de futuro.

Ambas sociedades manifestaron su posición favorable a la operación, si bien el Ayuntamiento de Azkoitia planteó la necesidad de analizar dicha actuación en detalle, al objeto de identificar todos los aspectos que permitan tomar las decisiones oportunas y adecuar el marco urbanístico para posibilitar dicha operación.

De esta manera, entre octubre y diciembre de 2016 se llevó a cabo un proceso de trabajo, realizado con la asistencia técnica de LKS, orientado a analizar las alternativas existentes, las principales dificultades y vías de actuación para solventarlas, una primera estimación del coste económico de las obras a ejecutar y el proceso urbanístico a desarrollar. Este proceso se llevó a cabo de manera consensuada con el Ayuntamiento de Azkoitia y a lo largo del mismo se mantuvieron una serie de reuniones con la Agencia Vasca del Agua (URA), en relación al tratamiento de la regata Irizar.

Tras analizar las alternativas, costes y demás cuestiones, en febrero de 2017 el Grupo Xubi solicitó a UrolakoIndustrialdea S.A. la compra de la parcela V4 de Oinartxo en base a las condiciones previamente acordadas y de 3.500 m² propiedad de dicha sociedad ubicados en suelo no urbanizable contiguo a Oinartxo, al objeto de reponer las zonas verdes intersticiales que pasan a parcela industrial privada según la ordenación previamente consensuada con el Ayuntamiento. El Consejo de Administración de UISA del 28 de febrero de 2017 acordó la venta a Xubi de la parcela V4 y de los suelos no urbanizables necesarios.

Una vez adquirida la parcela V4 de Oinartxo, Xubi pone en marcha el proceso urbanístico previsto, de forma consensuada con el Ayuntamiento de Azkoitia, que incluye un Anteproyecto para la modificación del trazado de la regata Irizar, cuyo traslado constituye un requisito indispensable para poder fusionar ambas parcelas industriales.

A partir de este momento, se lleva a cabo un proceso de análisis técnico de las diferentes alternativas para la modificación del trazado de la regata Irizar, en el que se analizan multitud de alternativas y de variantes que se van



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

contrastando con la Agencia Vasca del Agua (URA), hasta consensuar una de las soluciones planteadas en una reunión mantenida el 4 de octubre de 2018.

Una vez acordada con URA la solución para el nuevo trazado de la regata, se redacta el Anteproyecto con la solución técnica acordada con URA. Este Anteproyecto cuenta con informe favorable de URA de fecha 22 de enero de 2019.

Con fecha de 16 de noviembre de 2018, se hizo entrega por parte de Marco Seguro, en representación de XUBI Large S.L. de la documentación de segunda Modificación del Plan Parcial del sector 26 Oinartxo de Azkoitia, acompañada de la siguiente documentación:

- Documento Inicial Estratégico (documento ambiental). Incluyendo Anexo V del Decreto 211/2012.
- Borrador de la Modificación del Plan Parcial. Incluyendo Estudio de Impacto Acústico.
- Formulario tipo cumplimentado para firmar y sellar por el Ayuntamiento.
- Ficheros Shape del ámbito.

Paralelamente a dicho documento se entregó en el registro municipal, copia de la documentación denominada ANTEPROYECTO DE MODIFICACION DEL TRAZADO DE LA REGATA IRIZAR. Dicho documento se remitió al órgano competente en materia de Aguas, a URA UR AGENTZIA; organismo que a su vez debe informar dentro del procedimiento de Evaluación Ambiental, objeto del presente expediente.

Con fecha de 17 de enero de 2019, la Dirección de Administración Ambiental ha emitido informe en el que se indica que la documentación presentada en formato digital, en el marco del expediente de referencia, ha quedado incorporada a dicho expediente y procede a devolver el resto de la documentación.

Con fecha de 25 de enero de 2019, dentro del mencionado expediente de consulta realizado a URA UR AGENTZIA, se ha recibido respuesta favorable al mismo.

Tal y como obra en el expediente, se ha considerado someter la segunda Modificación del Plan Parcial al procedimiento de Evaluación Ambiental Estratégica Ordinaria por la afección del futuro proyecto de urbanización al dominio público hidráulico.

Mediante Resolución de fecha 18 de marzo de 2019, del director de Administración Ambiental, se formula el documento de Alcance del Estudio Ambiental Estratégico de la Modificación del Plan Parcial del Sector 26 Oinartxo de Azkoitia.

Los hitos más significativos en la tramitación de la Modificación del citado Plan Parcial son los siguientes:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Aprobación Inicial: acuerdo del Alcalde-Presidente de la Corporación con fecha 24 de mayo de 2019 (BOG nº 103, de 3 de junio de 2019). Sin alegaciones durante el periodo de información pública.
- Informe Infraestructuras Viarias Diputación Foral Gipuzkoa: informe favorable con fecha 12 de junio de 2019.
- Informe desfavorable de la Agencia Vasca del Agua (URA): con fecha 23 de julio de 2019. Este informe establece la siguiente condición: La caseta eléctrica que está en la margen derecha, justo en la zona de aguas arriba de donde se modifica el trazado deberá ubicarse fuera de la franja de servidumbre de cauces.
- Informe favorable de la Agencia Vasca del Agua (URA): en septiembre de 2019, dando por buenos los compromisos recogidos en el informe remitido a URA con fecha 1 de agosto de 2019.
- Documentación de Subsanación para la Declaración Ambiental Estratégica: remitido por el Ayuntamiento el 3 de agosto de 2020. Dicha documentación da respuesta al escrito de la Dirección de Administración Ambiental de fecha 9 de diciembre de 2019 que solicita la subsanación de errores en la tramitación y en el estudio ambiental estratégico.
- Declaración Ambiental Estratégica: Resolución de 5 de octubre de 2020, del Director de Administración Ambiental, por la que se formula la Declaración Ambiental Estratégica de la Modificación del Plan Parcial.
- Informe de Telecomunicaciones: con fecha 5 de marzo de 2021 se recibe informe favorable en relación con la adecuación a la normativa sectorial de telecomunicaciones, por parte de la Dirección General de Telecomunicaciones.

II.- CAMBIOS EN LA MODIFICACIÓN DEL PLAN PARCIAL

El documento para aprobación definitiva de la segunda Modificación del Plan Parcial del sector 26 Oinartxo de Azkoitia, es entregado con fecha de 17 de marzo de 2021 por parte de Marco Seguro, en representación de XUBI Large S.L.

Se entrega copia digital mediante registro telemático. Las principales modificaciones que se han recogido en el documento son las siguientes:

Los cambios principales en relación al documento aprobado inicialmente son los siguientes:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Memoria: apartado 7.4 “Descripción de la infraestructura proyectada”: se recogen los criterios técnicos para la sustitución del centro de transformación, en respuesta al informe de URA.
- Planos: se incorpora un nuevo plano PII.07 “Nueva ubicación del centro de transformación”, como respuesta al informe de URA.
- Estudio Económico-Financiero: se actualiza la estimación económica de los costes de la urbanización pública, incorporando la sustitución del centro de transformación exigida por URA y se actualiza el análisis de la viabilidad económica de la actuación con el nuevo coste de urbanización estimado.

Cambios en el Estudio Ambiental Estratégico

Se redacta un documento refundido que incorpora los siguientes aspectos:

- Subsanación a los aspectos indicados por el órgano ambiental: cálculo de la huella de carbono, afecciones sobre las infraestructuras, indicadores ambientales, etc.
- Medidas correctoras adicionales incluidas en la Declaración Ambiental Estratégica.

El documento presentado incorpora justificación del artículo 7.2 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, por el que se regulan los planes de ordenación territorial y los instrumentos de ordenación urbanística, e incorpora la siguiente documentación requerida por el mismo:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2.- En el supuesto de planes sometidos a evaluación ambiental estratégica ordinaria, el órgano competente para su aprobación definitiva deberá publicar además un anuncio con los siguientes extremos:

a) Un extracto que incluya los siguientes aspectos:

1) De qué manera se han integrado en el plan los aspectos ambientales.

2) Cómo se ha tomado en consideración en el plan el estudio ambiental estratégico, los resultados de la información pública y de las consultas incluyendo, en su caso, las consultas transfronterizas y la declaración ambiental estratégica, así como, cuando proceda, las discrepancias que hayan podido surgir en el proceso.

3) Las razones de la elección de la alternativa seleccionada, en relación con las alternativas consideradas.

4) Una referencia a la dirección electrónica en la que el órgano sustantivo pondrá a disposición del público el contenido íntegro del plan.

b) Las medidas adoptadas para el seguimiento de los efectos en el medio ambiente de la aplicación del plan.

En relación a la supresión del título sexto de las ordenanzas está fundamentada, en comparación con el resto de ámbitos del municipio, en los cuales no existe ninguna obligación de conservación de la urbanización pública por parte de los propietarios de las edificaciones.

III.- CONCLUSIÓN Y TRAMITACIÓN

Una vez analizado el documento, se estima que contiene todas las determinaciones y documentos precisos para proceder con la tramitación establecida por el artículo 95 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco, Aprobación definitiva.

PROPUESTA:

Primera.- Proceder con la tramitación establecida por el artículo 95 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco, Aprobación definitiva de la Segunda Modificación del Plan Parcial del S.26 Oinartxo.

Bere eragina izan dezan,

Azkoitian, 2021eko martxoaren 10ean.

Udal Arkitektoa
Arturo Garate Zubizarreta



II.- TXOSTEN JURIDIKOA

Hirigintzako AOTk, eta idazkari orokorraren adostasun oharrarekin, ondoko txostena/ebazpen proposamena aurkeztu du:

“AURREKARIAK:

2019ko apirilaren 23an LKS KREANek XUBI LAGE, SLren izenean aurkeztu zuen “26 OINARTXO sektorearen Plan Partzialaren bigarren aldaketa burutzeko proposamen dokumentua.

2019ko maiatzaren 24ko Alkatetzaren Dekretu bidez hasierako onarpena eman zitzaion Plan Partzialaren aldaketa dokumentuari eta era berean administrazio eta entitate sektorialeiei kontsulta fasea zabaldu zitzaion eta jendaurreko erakusketan jarri zen dokumentua 45 egunez.

Arloko eskumenak dituzten administrazio hauen txostena jaso da: 2019ko ekainaren 14an Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura sailarena; 2019ko abuztuaren 14an URA agentziarena; eta 2021eko martxoaren 5ean Gai Ekonomikoetako eta Eraldaketa Digitalaren Ministeritzaren Dirección General de Telecomunicaciones y Ordenación de los Servicios de Comunicación Audiovisualena.

2019ko urriaren 2ko ziurtagiri bidez, Udal Idazkariak informazio publiko fasean alegaziorik aurkeztu ez zela ziurtatu zuen.

Planari ohiko ingurumen ebaluazioa egin zaio. 2020ko urriaren 5an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Organoak prozedura honi dagokion Ingurumen Adierazpen Estrategikoa formulatu zuen, 2020ko azaroaren 13ko EHAA n argitaratu zena.

Orain, sustatzaileak “26 OINARTXO sektorearen Plan Partzialaren bigarren aldaketa”ren behin betiko onarpenarako dokumentua aurkeztu du, biltzen dituen arloko eskumenen txostenen etan jasotako xehetasunak, ingurumen adierazpen estrategikoak eragindako egokitzapenak eta dokumentuan txertatutako beste hainbat hobekuntza. Udal bulego teknikoak dokumentuaren gaineko txostena egin du.

ZUZENBIDE OINARRIAK:

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 103.1 art.-aren arabera, hirigintza planen berrikustea ez den edozein aldaketa egiteko aldaketa egitea beharrezkoa izango da. 104 art.-aren arabera, planen aldaketarako prozedura, plan beraren onarpenerako prozedura berbera izango da. Hala, legearen 95 eta 96 art.-an arautzen da plan partzialak onartzeko prozedura. Hasierako onarpena izango dute (95.2), eta behin betiko onarpena ere bai (96.1). Halaber, kontuan izan behar da



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

aldaketa honen tramitazioan 46/2020 dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen onartu dela.

2/2006 Legearen 68 art.ak ezartzen du planaren gutxieneko edukia, eta kasu honetan, eduki hori barneratzen da udalean aurkeztu den dokumentuan. Halaber, behin betiko onarpenerako dokumentuak jaso dituen aldaketak ez dira funtsezkoak.

Dokumentuak behin betiko onarpena jaso ostean, 2/2006 legearen 89 art.-an eta 46/2020 Dekretuan jasotako tramiteak burutuko dira.

Eskumenari dagokionez, eta Toki Erakundeen 7/1985 Oinarri Legearen 22.2.c art.-aren arabera, osoko bilkurarena da plan partzialaren aldaketaren behin betiko onarpen akordioa hartzeko eskurantzia.

Gauzak horrela, eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 172 artikulua aintzat hartuta, ondoko akordio proposamena luzatzen dut:

I.- Behin betiko onartzea ondoko hirigintza antolamendu dokumentua: “26 OINARTXO HEEaren Plan Partzialaren bigarren aldaketa”.

II.- Dokumentuaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiko plangintzaren erregistrora igortzea, argitaratu aurretik, bertan jasotako geratu dadin.

III.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 89.5 artikulua arabera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onarpen akordioa eta hirigintza araudia indarrean sartzeko. Halaber, behin betiko onarpen akordioaren iragarkia argitaratuko da lurralde historikoan hedapen handiena duen edo duten egunkarian edo egunkarietan.

III.- AKORDIO PROPOSAMENA

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Osoko Bilkurari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Lurralde Antolaketa, Ingurumena, Landa Garapena, Obrak eta Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak.

Hori horrela, honakoa onartzea proposatzen da:

“I.- Behin betiko onartzea ondoko hirigintza antolamendu dokumentua: “26 OINARTXO HEEaren Plan Partzialaren bigarren aldaketa”.

II.- Dokumentuaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiko plangintzaren erregistrora igortzea, argitaratu aurretik, bertan jasotako geratu dadin.

III.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 89.5 artikulua arabera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onarpen akordioa eta hirigintza araudia indarrean sartzeko. Halaber, behin betiko onarpen akordioaren



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

iragarkia argitaratuko da lurralde historikoan hedapen handiena duen edo duten egunkarian edo egunkarietan.”

Lurraldea Batzordeak, 2021ko martxoaren 25ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Ana Azkoitia Urteaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Itziar Joaristi Olariaga, Juan Jose Etxaniz Peña eta Janire Igoa Merino.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du gaia.

Jose Joakin Etxaniz jaunak, herriko enpresa baten proposamena izanik, beste inori kalterik egingo ez diolakoan, alde bozkatuko dutela esan du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 26. Oñartxo HEE-aren Plan Partzialaren bigarren aldaketa behin betikoz onartzea aho batez erabaki du.

3.- EUSKO JAURLARITZA, AZKOITIKO UDALA ETA AZKOITIA LANTZEN, S.A.-REN ARTEKO HITZARMENAREN ALDAKETAREN ONESPENA, AZKOITIKO 10. SEKTOREKO, TXALONERREKA, BABES PUBLIKODUN ETXEBIZITZAK SUSTATZEKO.

Honako irizpena aurkeztu da:

“PROPUESTA DE ACUERDO POR EL QUE SE AUTORIZA LA SUSCRIPCIÓN DE UN CONVENIO CON EL AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA Y AZKOITIA LANTZEN S.A. PARA LA PROMOCIÓN DE VIVIENDA DE PROTECCIÓN PÚBLICA EN EL SECTOR 10 TXALON ERREKA EN AZKOITIA.



ANTECEDENTES

El Pleno del Ayuntamiento de Azkoitia, adoptó el 30 de diciembre de 2020 el siguiente acuerdo:

PRIMERO: *Aprobar el Convenio de Colaboración, que figura como Anexo a este Acuerdo, entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, mediante el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, el Ayuntamiento de Azkoitia y Azkoitia Lantzen, S.A. para posibilitar la promoción de vivienda de protección pública en el Sector 10 Txalon Erreka en el término municipal de Azkoitia, realizando las siguientes aclaraciones:*

El Ayuntamiento no exigirá la constitución de fianza alguna a VISESA o a cualquier entidad inscrita en el EMAS en el momento de otorgar la correspondiente licencia municipal.

El Ayuntamiento no puede disponer la exención de las tasas municipales correspondientes al conjunto de las licencias urbanísticas municipales reguladas en el artículo 207 de la Ley 2/2006.

SEGUNDO: *Autorizar a D. Javier Zubizarreta Zubizarreta, Alcalde del Ayuntamiento de Azkoitia, para la firma de dicho convenio.*

TERCERO: *Notificar el presente acuerdo al departamento de Intervención y publicar el convenio en el Portal de Transparencia del Ayuntamiento.*

Notificado dicho acuerdo al Gobierno Vasco, el consejo de gobierno, consideró adecuado adaptar el texto del convenio a las aclaraciones realizadas por el Ayuntamiento. Por ello, el 16 de febrero de 2021 acordó modificar dicho convenio.

La modificación consiste en suprimir el cuarto punto de la cláusula cuarta del convenio y eliminar la mención “especialmente en lo que se refiere a la gestión de los residuos” del punto quinto de la misma cláusula cuarta.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Dado que la modificación pretende responder a las aclaraciones realizadas en el acuerdo adoptado por el Ayuntamiento el 30 de diciembre, basadas, en los informes de los técnicos del Ayuntamiento de Azkoitia, se propone su aprobación, en base al informe realizado al efecto por la Secretaria municipal.

El Consejo de Administración de Azkoitia Lantzen, S.A. ha acordado su aprobación el 10 de marzo de 2021.

Por ello se propone al Pleno la adopción del siguiente acuerdo:

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO: Aprobar el Convenio de Colaboración modificado, que figura como Anexo a este Acuerdo, entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, mediante el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, el Ayuntamiento de Azkoitia y Azkoitia Lantzen, S.A. para posibilitar *la promoción de vivienda de protección pública en el Sector 10 Txalon Erreka en el término municipal de Azkoitia*

SEGUNDO: Autorizar a D. Javier Zubizarreta Zubizarreta, Alcalde del Ayuntamiento de Azkoitia, para la firma de dicho convenio.

TERCERO: Notificar el presente acuerdo al departamento de Intervención y publicar el convenio en el Portal de Transparencia del Ayuntamiento.

La Comisión de Territorio celebrada el día 25 de marzo de 2020, examinó el asunto y dio su dictamen, siendo el resultado de la votación el siguiente:

Votos a favor: Imanol, Arrizabalaga, Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Itziar Joaristi, Angel Mari Etxeberria y Janire Igoa.

Votos en contra: Jose Joakin Etxaniz.”



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Alkate Jk. azaldu du gaia.

Abenduko osoko bilkuran bi puntutan aldaketak egitea proposatu zela adierazi die batzarkideei.

Baita ere dio, otsailean, Eusko Jaurlaritzak Udalak bidalitako argibideak onartu zituela testua aldatuz.

Amaitzeko, berriz ere osoko bilkurara dakartela dio testu berria onartzeko.

Jose Joakin Etxaniz jaunak adierazi du, Azkoitia Lantzen tartean denez eta abenduko bilkuran ezezkoa eman ziotenez, orain aldatzea ez litzatekeela logikoa izango.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarguren eta Janire Igoa Merino.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak gehiengoz erabaki du Eusko Jaurlaritzaren, Azkoitiko Udalaren eta Azkoitia Lantzen SAREN arteko hitzarmenaren aldaketa onartzea, Azkoitiko Txalonerreka 10 sektoreko babes publikoko etxebizitzak sustatzeko.

4.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ KREDITUAK ALDATZEKO AZKOITIKO UDALEKO 1 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN DIKTAMENA

1.- AURREKARIAK

2021urteko Udal honen Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Alkate Lehendakariak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduerak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta expediente horren izapideketa aplikagarriak zaizkion legei egokitzen zaiela.

Honez gain, kontu-hartzaileak honako txosten hau egin du Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa

TXOSTENA

AZKOITIKO UDALA

KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA

KREDITU GEHIGARRIA 1/2021

**AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN
HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

ARAUDI APLIKAGARRIA:

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa

Azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu-Araua, toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoa.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1.1- ENTITATE ZERRENDA:

AZKOITIKO UDALA
SAN JOSE EGOITZA
ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontu onarpenaren espedienteak -3.027.187,15 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Ondorio horretarako, pasa den urtean egiten zen moduan, doiketa adierazgarria egin beharra dago, aurretik onarturiko kreditu aldaketak 2020ko Udaleko eta bere erakunde autonomoen diruzaintzako gerakinarekin finantziatu baita aurretiazko txertaketak egiteko eta beste kreditu gehigarri batzuk finantzatzeko.

Ondoren taula batean zehazten dira gerakinaren finantziarioa.

KREDITU ALDAKETAK	Udalaren erakunde 2020ko gerakina	eta bere autonomoen aurrikusiriko
Kreditu txertaketa 1/2020		1.343.493,35
Kreditu txertaketa 2/2020		612.889,06
Kreditu gehigarria 1/2020 udala		509.519,18
GUZTIRA		2.465.901,59

Honegatik doiketa 2.465.901,59 €koa da eta ondorioz **espedienteak - 561.285,56 euroko defizita** du. Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz aurrekontuaren egonkortasunaren helbururik ez da bete behar 2021ean.

Hala ere foru dekretu arau honen 1.4 atalak dio hurrengo artikuluan araututako defizit helburuak gaudituz gero, toki entitateak behartuta egongo direla plan ekonomiko finantzario bat egitea eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Aurrekontu egonkortasuneko helburuak 2021erako zehazterakoan Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz Azkoitiko Udalarentzat defizit globaleko helburua hau da:

Azkoitiko Udalaren kasuan 1.242.217 € da defizit muga, 2.2 artikulua arabera.

Hori dela eta, Aurrekontuaren onarpenaren espedienteak, behin gerakinaren doiketa eginda, 9/2020 foru dekretu arauak ezartzen duen defizit helburuaren azpitik dagoenez, Azkoitiko Udala ez da behartuta egongo plan ekonomiko finantzario bat egitea. Hala ere, plan ekonomiko finantzarioa egiteko betebeharra dagoen ala ez jakiteko, defizit helburua likidazioaren unean aztertuko da.

Finantzen iraunkortasuna



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2021eko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 5.106.188,38€, 2020an likidatutako sarrera arrunten (13.968.337,66€) % 36,55 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2021eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2021erako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2021erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz zor publikoaren helbururik ez da bete behar 2021ean.

Hala ere esan behar da 2020ko helburua %70a izan zela eta Azkoitiko Udalaren kasuan, 2021ean, zor publikoaren portzentajea dezente azpitik dagoela, % 36,55 a hain zuzen.

Gastuaren araua

	2021	2020 LIKIDAZIOA
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	17.081.047,15	12.851.207,94
Zorren interesak:	43.272,87	37.206,67
SEC doikuntzak:		
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	695.100,00	730.245,11
Gastu konputagarria:	16.342.674,28	12.083.756,16
Gastu konputagarriaren hazkundera	35,24%	

Gastu arauaren azterketa egiterakoan, simulazio bat besterik ez da egin, 2020ko erreferentziak kontuan hartuz. 2021erako ez dago ez hazkunderaren erreferentzi tasarik, ezta gastu konputagarria kalkulatu beharrik. Gastu araua etenda dago baita ere 9/2020 foru Dekretu arauaren arabera.

1.3.- ONDORIOAK

9/2020 foru dekretu arauaren ondorioz etenda gelditu dira txostenean aztertu ditudan hiru arau fiskalak.

Esan behar da egonkortasun helburuari dagokionez, Kreditu aldaketa honek, behin gerakinaren doiketa eginda, defizit egoera helarazten duela -561.285,56 €takoa, baina defizit kopuru hau Gipuzkoako Foru Aldundiak Azkoitiko Udalari lagatzen dion defizit mugaren azpitik dagoela, 1.242.217 € baita Azkoitiari dagokiona, 2.2 artikulua arabera.

Une batean Udalak defizit helburua gaindituz gero, behartuta egongo da plan ekonomiko finantzario bat egin eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Honez gain 9/2020 Foru dekretu arauaren 1.3 artikulua araberak diruzaintzako gerakina erabili daiteke kreditu aldaketak finantzatzeko, arau fiskalak eteteak berekin bait dakar, eten egingo dela sarrera handiagoak eta diruzaintzako gerakina zorra murriztera bideratzeko eskakizuna.

Azkoitian, 2021eko martxoak 25ean
Kontuhartzaileak

Beraz, antolakuntza batzordeak ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.

IRIZPENA

LEHENENGO: Proposamenean zerrendatzen diren Azkoitiko Udalaren gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarria bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, 509.519,18 € zenbatekoa.

BIGARRENA: Espediente onartzeko eskumena bilkura osoari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsio buruzko tramiteak. Gainera espedientearen kopia bat bidali beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, azaldutako Foru Arauaren 15.3 artikulua adierazten duen tramitazio-fasean.

Antolakuntza Batzordeak, 2021eko martxoaren 25ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz ,

ABSTENTZIOA: Iraitz Otaño, Ainara Goenaga.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du gaia.

Gerakinaren finantzatzea dekretuz onartu ondoren, lehenengo kreditu aldaketa dela adierazi du, hiru partida hauek finantzatzeko: Feder dirulaguntzarekin kale argiteria berritzea (371.789,18€) Kale Argiteria berritzeko Proiektua (15.730€), eta Skate Parkea (122.000€).

Jose Joakin Etxaniz jaunak esan du kreditu aldaketaren oinarri diren helburuen alde daudela.



Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Abstentzioak: Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga eta Angel M^a Etxeberria Iburguren.

Beraz, Udalbatza Osoak kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko Azkoitiko Udaleko 1 zenbakidun espedientea hasieraz onartzea gehiengoz erabaki du.

5.- 2021EKO AURREKONTUAN ONARTURIKO BIGARREN KONPROMISO KREDITUA BERTAN BEHERA UZTEA, ETA 1/2021 KONPROMISO KREDITUAREN HASIERAKO ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

KONPROMISO-KREDITUA BAIMENTZEA, ARGITERI PUBLIKOAN LED MOTAKO BONBILLAK EZARTZEKO ZERBITZUA FINANTZATZEKO

AURREKARIAK

1.- 2020ko abenduaren 30ean Udalaren 2021eko aurrekontua onartu zen. Aurrekontuaren onarpenaren espedientearen konpromiso kredituen eranskinean bi konpromiso kreditu onartu ziren. Lehendabizikoa, Azkoitia Lantzenekin lankidetz hitzarmena Oñartxo Zabortegei Zaharrean lixibiatuen tratamendu zerbitzuak finantzatzeko zen eta bigarrena, argiteri publikoan led motako bonbillak ezartzeko zerbitzua finantzatzeko .

Kontu-hartzaileak honako txostena egin zuen aipaturiko bi konpromiso kredituak batuz:

2021 urtean Udalaren aurrekontuan jasotako konpromiso kredituen kopurua 282.519,18 €koa da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

21/2003 Foru Arauak 22.2 atalean zehazten diren limiteak aztertu dira. Udalaren era kontsolidatuan likidatutako azken ekitaldiko (2019) eragiketa arrunten ziozko baliabideak 15.802.667,16€ izan ziren eta honen % 25a 3.950.666,79 € dira, beraz ez legoke arazorik konpromisozko kreditu hauek onartzeko.

Azkoitia, 2020ko Abenduaren 18a

2.- 2021eko aurrekontuaren bigarren konpromiso kredituak aurreikusten zuen argiteri publikoaren berritzearen finantziazioa 2020, 2021 eta 2022 ekitaldietan onarturiko kredituen bitartez egingo zela, ondoren aipatzen den taularen arabera, eta honela 2021 ekitaldian zehar kontratazio jardunbideari hasiera emateko egoeran egongo litzateke Udala.

3.- "MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO" erakundeak 20200011527 zenbakidunpean, 2020ko abenduaren 30ean irteera ematen dio Azkoitiko Udalean sarrera emanez EBAZPENARI, non gure diru-laguntza eskaria onartzen diguten.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

S A L I D A				
	UNIÓN EUROPEA	MINISTERIO DE TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO	INstituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía	FONDO EUROPEO DE DESARROLLO REGIONAL (FEDER) Economía Baja en Carbono Entidades Locales
	265400011521-30/12/2020	Renovación de las instalaciones de alumbrado, iluminación y señalización exterior 02.		
	Oficina Virtual			

Descripción del Proyecto:
Renovación del alumbrado público exterior en el municipio de Azkoitia, en la provincia de Guipúzcoa, actuando en 1.963 de los 3.280 puntos de luz existentes en el municipio, sustituyendo las actuales luminarias por luminarias LED más eficientes.
Con esta actuación se disminuirá la potencia de 312,72 kW a 78 kW y se conseguirá un ahorro energético estimado del 82,49 %.
Las características técnicas completas y detalladas del proyecto son las especificadas en el documento definitivo de memoria técnica de la actuación presentado por el solicitante.

d) Objetivos específicos y medidas y descripción económica de la ayuda solicitada:

MUNICIPIO	OBJETIVO ESPECÍFICO	MEDIDA	INSTALACIÓN	INVERSIÓN TOTAL SOLICITADA (€)	COSTE ELEGIBLE SOLICITADO (€)	INGRESOS NETOS (€)	AYUDA SOLICITADA (€)
AZKOITIA	OE 431	Medida 6	Renovación de las instalaciones de alumbrado, iluminación y señalización exterior	975.038,36	975.038,36	0,00	487.519,18
			TOTAL	975.038,36	975.038,36	0,00	487.519,18

4.- Ebazpen honetan hainbat baldintza eskatzen dira:

- 2021eko urtarrilaren 30erako diru-laguntza onartzea
- 2021eko ekainaren 30erako lizitazioa martxan hasia egotea
- 2021eko abenduaren 30 erako esleipena eginda egotea
- 2023ko ekainaren 30erako lan honen exekuzio guztia amaitua egotea.

Data huez gain, FUNTSAK exekuzioa bukatzean eta ziurtatzean ingresatuko dizkigutela azaltzen dute eta aparteko kontabilitatea eramatea eskatzen dute.

5.- Baldintza hauek guztiz aldatzen dute aurrekontuan onarturiko bigarren konpromiso kreditua.

Alde batetik, sarrerei dagokienez, aurrekontuan, 2021ean eskubidearen onarpena aurreikusten zen, guztira 487.519,18 €. Hau ez da posible orain. Aldundiak dio "R" a onartzeko sarreretan, gastua guztiz exekutatzen denean, ziurtatzen dugunean Ministerioaren aurrean guztia egin dela eta inongo zalantzarik ez dagoenean dirusarrera hori edukiko dugunik, orduan egin beharko dela "R" a. Honek diru-laguntzaren kanpoko finantziarioaren sarrerak 2022 ekitaldira pasatzen ditu.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Sarrera hauek berez 2022an finantzatuko lukete konpromiso kreditu espediente berri honetan onarturiko 2022rako gastu konpromiso berria.

Gastuei dagokienez, programa berezi batean kontabilizatzea eskatzen duenez, 2020ekitaldian onarturiko 200.000 €tako partida ez da txertatzen hurrengo ekitaldira, kodea ez baita zuzena.

2021eko gastuen aurrekontua honela izango da:

.-100.000 €: 1/2021 kreditu transferentzia bitartez partida berri bat sortuko da, 1 2000,623,165,10,02 2021 kodea duena.

.- 371.789,18 €: Martxoko bilkura osoak onartuko du 371.789,18 €tan partida hori gehitzea, guztira 471.789,18€tako erabilgarritasuna duen partida sortuz, 1 2000,623,165,10,02 2021.03.22, gerakina erabiliz.

.- 15.730,00 €: Martxoko bilkura osoak ere, gerakina erabiliz, proiektua finantzatzeko partida sortuko du, 15.730,00 €tako, eta 2000,643,165,10,01 2021 kodea duena.

.- 487.519,18 €: 2022 urterako konpromiso kreditua onartuko da, beste erdiarena, 487.519,18 € hain zuzen.

OINARRI JURIDIKO ETA EKONOMIKOAK

1.-KONPROMISO-KREDITUAK:

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak dio 22. artikuluan, konpromiso-kredituen orria ekitaldian zehar konprometitu ahal diren urte anitzeko gastu guztiek osatzen dutela eta hura onesten denean beraiek bideratzeko baimena egongo da, ezarritako baldintzetan.

2.- KREDITUEN KOPURUA:

22.2 atalak dio konpromiso-kredituen orrietan bakoitzarentzat zenbateko osoa eta beraren burutzapenerako aurreikusitako ekitaldiak adieraziko dira.

Etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezin da izan erakundearen likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arruntan ziozko baliabideen % 25 baino gehiago, 6.3 e) artikuluan eskatutako azterlanetik muga txikiagoa sortu ezean.

Konpromiso-kredituak bestek finantzatzen baditu, finantzaketaren zenbatekoa ez da konputatuko gastu gisa aurreko paragrafoan aipatutako mugen ondoreetarako.

2021.urtean Udalaren aurrekontuan jasotako konpromiso kredituen kopurua 282.519,18 €koa da. Une honetan eranskinean onarturiko bigarren konpromiso kreditua bertan behera gelditzen da 187.519,18 €tan Ondorioz 2022 ekitaldirako



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

onarturiko konpromiso kredituak 95.000 € izango lirateke.. Kopuru honi Argiteria publikoan led motako bonbillak ezartzeko zerbitzua finantzatzeko kopuru berria gehitzen badiogu, 2022 ekitaldirako onartzen dugun konpromisoa hain zuzen, guztirako konpromiso kredituen kopurua 582.519,18 € dira.

Udalaren era kontsolidatuan likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arrunten ziozko baliabideak 2020an 13.968.337,66 € izan ziren eta honen % 25a 3.492.084,42 €, beraz ez legoke arazorik konpromisozko kreditu hauek onartzeko.

3.-GASTUAREN BAIMENA ETA ERABILERA

Udaleko Aurrekontua gauzatzeko Udal Arauak 6.2 atalean gastuaren baimena eta erabilera arautzen ditu. Atal honek dio Udalbatzarraren eskumena izango da 1.344.500,00 eurotik gorako gastuen, nahiz konpromisozko kredituek finantzatzen dituztenen baimena eta erabilera, bat etorriko da Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 legearen bigarren xedapen gehigarrian arautzen duenarekin.

KONKLUSIOAK

1.-Kontuhartzaitza honek ez du arazorik ikusten konpromiso kreditu hau onartzeko. Honako ezaugarriak edukiko lituzke:

2.- Gastuaren baimena Udal bilkura osoari dagokio.

Kontuhartzaileak, 2021eko martxoaren 25ean

IRIZPENA

Lehenengoa- Aurrean jaso den txostena ikusita, proposatzen da 2022 urterako konpromiso kreditua onartzea, 487.519,18 €koa, honako ezaugarriak dituena:

RESUMEN GENERAL		LABURPEN OROKORRA							
IDENTIFICACIÓN DEL GASTO		GASTUA: ARGITERIA PUBLIKOAN LED MOTAKO BONBILLAK EZARTZEA							
Izena	Onarpen data	Plazo gestión(3)		Kopurua	Ordainketa kredituak	Konpromisozko kredituak	Organo	Erakundearen	Besterena:FE
		Urtea	Urtea						
(1)	(2)	Hasera	Bukaera		2.021	2.022	Kudeatzailea		
ARGITERIA PUBLIKOAN LED MOTAKO BONBILLAK EZARTZEA	25/03/2021	2021	2022	975.038,36	487.519,18	487.519,18	kontuhartzail	487.519,18	487.519,18



**AURREKONTUAREN 2. KONPROMISO KREDITUEN ERANSKINAREN
ALDAKETA/MODIFICACIÓN DEL SEGUNDO COMPROMISO DEL ANEXO DEL PRESUPUESTO**

2021ko ekitaldirako / Ejercicio 2.021

GASTUA: ARGITERI PUBLIKOAN LED MOTAKO BONBILLAK EZARTZEA					
EXEKUZIO URTEA	FINANTZ BALIABIDEAK/RECURSOS FINANCIEROS				Finantziatzaia
	ZENBATEKOA EUROTAN IMPORTE	Aurrezki Arrunta	Beste hainbat sarrera FEDER	GUZTIRA TOTAL (F)	guztira TOTAL FINANCIACIÓN
2.022	487.519,18		487.519,18	487.519,18	487.519,18
Guztira	487.519,18	0,00	487.519,18	487.519,18	487.519,18

Bigarrena.- Espedientea Udalbatzarrak onartu behar du eta ezarritako informazioari, erreklamazioari, publizitateari eta errekurtsioei buruzko izapideak aplikatu behar ditu Aurrekontu Orokorra onartzeko. 21/2003 Foru Arauak, 15.artikuluaren esanetan du jendeaurrean jarriko dela, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-oholean eta gehien zabaltzen den egunkarian iragarri ondoren, hamabost egun jarri ere, eta epe hori bukatuta erreklamaziorik ez bada izan, berriz ere ipiniko da iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Hirugarrena.- 9/2020 foru dekretu arauaren ondorioz etenda gelditu dira 2020 eta 2021 ekitaldietarako hiru arau fiskalak, hau da, egonkortasuna, finantzen iraunkortasuna eta gastu araua. Hala ere kontuhartzaileak 2021eko kreditu aldaketen onarpenean txostena egiten du hiru hauek aztertuz.

Konpromiso kreditu hauen onarpenak aldatu egiten du 2021eko aurrekontua, konpromiso kredituen 2. Eranskina bertan behera gelditzen delako, 187.519,18 €takoa hain zuzen.. Hala ere irizpen honetan onartzen den espediente honek konpromiso kreditu berri bat suposatzen du 487.519,18 €takoa 2022 urterako. Baina kontuan hartu behar da kopuru honek guztiak kanpoko finantzaketa duela, hain zuzen Feder funtsen dirulaguntza, beraz eragiketa honek ez du aurtengo aurrekontu egonkortasunaren helburuaren azterketarik eskatzen. Aurrekontua likidatzen denean aztertuko da.

Laugarren.- Espedientearen kopia bat bidali beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, azaldutako Foru Arauaren 15.3 artikulua adierazten duen tramitazio-fasean.

Azkoitian, 2021eko martxoaren 25ean
Batzordeko Idazkaria



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Antolakuntza batzordeak 2021eko martxoaren 25ean izandako Batzordean batzordekideak irizpena bozkatu zuten eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz ,Iraitz Otaño, Ainara Goenaga.”

Ana Azkoitia andreak gai hau aurreko puntuarekin lotua dagoela esan du, LED Argiteriaren Proiektuarekin alegia. 2020 urterako konpromiso kreditua aurreikusi zela dio, hau bertan behera uzten delarik eta konpromiso kreditua onartzen dela 487.519,18 €tan.

Jose Joakin Etxaniz jaunak, LED argiak jartzearen alde daudenez, alde bozkatuko dela dio.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2021eko Aurrekontuan onarturiko bigarren konpromiso kreditua bertan behera uztea, eta 1/2022 konpromiso kreditua hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

**6.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ KREDITUAK ALDATZEKO ZUBIAURRE-
ELKARGUNE INSTITUTUKO 1 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN DIKTAMENA

1.- AURREKARIAK

2021urteko Udal honen Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Alkate Lehendakariak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduerak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta expediente horren izapideketa aplikagarriak zaizkion legei egokitzen zaiela.

Honez gain, kontu-hartzaileak honako txosten hau egin du Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa

TXOSTENA

ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA

KREDITU GEHIGARRIA 1/2021

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa

Azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu-Araua, toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoa.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1.1- ENTITATE ZERRENDA:

AZKOITIKO UDALA
SAN JOSE EGOITZA
ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA



Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontu onarpenaren espedienteak -3.052.187,15 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Ondorio horretarako, pasa den urtean egiten zen moduan, doiketa adierazgarria egin beharra dago, aurretik onarturiko kreditu aldaketak 2020ko Udaleko eta bere erakunde autonomoen diruzaintzako gerakinarekin finantziatu baita aurretiazko txertaketak egiteko eta beste kreditu gehigarri batzuk finantzatzeko.

Ondoren taula batean zehazten dira gerakinaren finantziazioa.

KREDITU ALDAKETAK	Udalaren erakunde 2020ko gerakina	eta bere autonomoen aurrikusiriko
Kreditu txertaketa 1/2020		1.343.493,35
Kreditu txertaketa 2/2020		612.889,06
Kreditu gehigarria 1/2020 udala		509.519,18
Kreditu txertaketa Elkargune 1/2020		25.000,00
GUZTIRA		2.490.901,59

Honegatik doiketa 2.490.901,59 €koa da eta ondorioz **espedienteak - 561.285,56 euroko defizita** du. Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz aurrekontuaren egonkortasunaren helbururik ez da bete behar 2021ean.

Hala ere foru dekretu arau honen 1.4 atalak dio hurrengo artikuluan araututako defizit helburuak gaindituz gero, toki entitateak behartuta egongo direla plan ekonomiko finantzario bat egitea eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Aurrekontu egonkortasuneko helburuak 2021erako zehazterakoan Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz Azkoitiko Udalarentzat defizit globaleko helburua hauxe da:

Azkoitiko Udalaren kasuan 1.242.217 € da defizit muga, 2.2 artikulua arabera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hori dela eta, Aurrekontuaren onarpenaren espedienteak, behin gerakinaren doiketa eginda, 9/2020 foru dekretu arauak ezartzen duen defizit helburuaren azpitik dagoenez, Azkoitiko Udala ez da behartuta egongo plan ekonomiko finantzario bat egitea. Hala ere, plan ekonomiko finantzarioa egiteko betebeharra dagoen ala ez jakiteko, defizit helburua likidazioaren unean aztertuko da.

Finantzen iraunkortasuna

2021eko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 5.106.188,38€, 2020an likidatutako sarrera arrunten (13.968.337,66€) % 36,55 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2021eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2021erako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2021erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz zor publikoaren helbururik ez da bete behar 2021ean.

Hala ere esan behar da 2020ko helburua %70a izan zela eta Azkoitiko Udalaren kasuan, 2021ean, zor publikoaren portzentajea dezente azpitik dagoela, % 36,55 a hain zuzen.

Gastuaren araua

	2021	2020 LIKIDAZIOA
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	17.106.047,15	12.851.207,94
Zorraren interesak:	43.272,87	37.206,67
SEC doikuntzak:		
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	695.100,00	730.245,11
Gastu konputagarria:	16.367.674,28	12.083.756,16
Gastu konputagarriaren hazkundera	35,45%	

Gastu arauaren azterketa egiterakoan, simulazio bat besterik ez da egin, 2020ko erreferentziak kontuan hartuz. 2021erako ez dago ez hazkunderaren erreferentzi tasarik, ezta gastu konputagarria kalkulatu beharrik. Gastu araua etenda dago baita ere 9/2020 foru Dekretu arauaren arabera.

1.3.- ONDORIOAK

9/2020 foru dekretu arauaren ondorioz etenda gelditu dira txostenean aztertu ditudan hiru arau fiskalak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Esan behar da egonkortasun helburuari dagokionez, Kreditu aldaketa honek, behin gerakinaren doiketa eginda, defizit egoera helarazten duela -561.285,56 €takoa, baina defizit kopuru hau Gipuzkoako Foru Aldundiak Azkoitiko Udalari lagatzen dion defizit mugaren azpitik dagoela, 1.242.217 € baita Azkoitiari dagokiona, 2.2 artikulua arabera.

Une batean Udalak defizit helburua gaindituz gero, behartuta egongo da plan ekonomiko finantzario bat egin eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Honez gain 9/2020 Foru dekretu arauaren 1.3 artikulua arabera diruzaintzako gerakina erabili daiteke kreditu aldaketak finantzatzeko, arau fiskalak eteteak berekin bait dakar, eten egingo dela sarrera handiagoak eta diruzaintzako gerakina zorra murriztera bideratzeko eskakizuna.

Azkoitian, 2021eko martxoak 25ean
Kontuhartzaileak

Beraz, antolakuntza batzordeak ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.

IRIZPENA

LEHENENGO: Proposamenean zerrendatzen diren ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOAREN gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarria bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, 25.000,00 € zenbatekoa.

BIGARRENA: Espediente onartzeko eskumena bilkura osoari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak. Gainera espedientearen kopia bat bidali beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, azaldutako Foru Arauaren 15.3 artikulua adierazten duen tramitazio-fasean.

Antolakuntza Batzordeak, 2021eko martxoaren 25ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz, Iraitz Otaño, Ainara Goenaga.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du Elkarguneko gerakinarekin finantzatzea planteatzen dela seinalitika osatzeko proiektua, 25.000€takoa.

Jose Joakin Etxaniz jaunak esan du helburuarekin ados daudela eta alde bozkatuko dutela.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibaguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza osoak kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko Zubiaurre-Elkargune Institutuko 1 zenbakidun espedientea hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

7.- AZKOITIKO UDALAREN 2020-2022 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETAREN ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA

AZKOITIKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2022REN ALDAKETA

LEHENA.- AURREKARIAK

2019ko abenduaren 27an Udal bilkura osoak, Azkoitiko Udalaren Diru-laguntzen plan estrategikoa 2020-2022onartu zuen.

2020-2022 aldian egongo da indarrean, eta izaera programatikoa duen kudeaketa tresna bat da. Ez du indar arautzailerik.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ematen du, diru laguntzak ezartzea proposatzen duten Administrazio publikoak behartuta daudela aldeztu aurretik diru laguntzen plan estrategiko bat egitera.

Agindu hau betez 2020-2022 urtetarako plan hau proposatzen da, legealdiarekin bat datorrena.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bertan, Azkoitiko Udaleko departamentuetatik kudeatzen diren diru laguntzen lerroak zehazten dira.

Departamentuak honako hauek dira:

- Euskara
- Hezkuntza
- Antolakuntza
- Gizarte Ongizatea
- Gazteria
- Alokairu sozialak
- Ingurumena
- Iraurgi Lantzen
- Merkataritza
- Kirola
- festak
- Kultura

Lerro bakoitzean informazio hau zehazten da:

Dirulaguntza lerroa
Helburuak
Lortu nahi diren ondorioak
Urteko kostua
Finantziazioa
Esleipen prozedura

Garrantzitsua da zehaztea dirulaguntzen plan estrategikoa onartzeak ez dakarrela berekin onuradun izan daitezkeen erakunde eta/edo pertsonen aldeko eskubiderik batere sortzea.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa gida bat da zeinak, aurretik ezarrita dagoen arau-esparruaren barruan, interes orokorreko jarduerak sustatzeko jarraibidea ematen duen.

Planaren helburuak 5. Artikuluan aipatzen dira eta besteak beste hauek dira:

1. Betetzea azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan jasotako legezko agindua, zeinak diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten Administrazio publikoak behartzen dituen aldez aurretik Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat egitera.

2. Udalari tresna bat ematea beraren eskumenekoak diren gaietan interes publiko eta sozialeko jarduerak babestu eta sustatu ahal izan ditzan.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3. Udaleko laguntza-lerro guztiei printzipio komun eta oinarri arautzaile batzuk ematea.

4. Ekonomiaren ikuspegitik, laguntzen jasagarritasun eta eraginkortasuna hobetzeko aukera emango duten tresnak definitzea.

5. Gardentasuna, informaziorako sarbidea eta gobernantza on bat, udal guztiei eskatzeko modukoa den zerbait.

BIGARRENA.- ALDAKETAK

2.1.- Udalbatza Plenoak 2021eko otsailaren 24an egindako bilkuran, bestek beste, honako aldaketa onartu zen aho batez:

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 8000.481.431.50.02 2021	MERKAT ETA OSTALARITZA HAINB.DIRUL.	22.000,00	70.000,00	92.000,00

Behin aldaketa onartuta, dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartu dira, ahal den azkarren dirulaguntza hauek bideratzeko.

Aldaketa honetan, honako ezaugarriekin geratu da partida:

Kodea: 1 8000.481.431.50.02 2021

Kopurua: 92.000,00€

Dirulaguntza lerro hau plan estrategikoan islatu behar da, izan duen aldaketa bertan txertatu behar delarik.

Honela geratuko da:

Merkataritza Arloko Dirulaguntzak. Izapidegilea: Merkataritza SAIL					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZ IAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Udalerrian merkataritza sustatzeko	Azkoitiko Merkatariek (elkartu naiz Elkartu	Azkoitiko Azkoitiko merkatariek beraien	92.000	Finantza keta funts propioek	NORGEHIAGOKA



laguntzak	gabeak), herrian Ekintza ezberdinak antolatzen laguntza ematea.	Negoioetan kalitatezko zerbitzua ematea eta promozio kanpaina bateratuak egitea Herriko eskaintza hobetuz.		in gingo da Aurreko ntuako IV kapitulu aren kontura	
-----------	---	--	--	---	--

OINARRI JURIDIKOAK ETA EKONOMIKOAK

1.- AZAROAREN 17KO 38/2003 DIRULAGUNTZEN LEGEA:

Lege honen 8.1 artikulua agindua ematen du diru laguntzak eman nahi dituzten Udal guztiek onartu beharra daukatela beren diru-laguntzen plan estrategikoa, era honetara:

Artículo 8 Principios generales

1. Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

2.- IZAERA JURIDIKOA

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa da izaera programatikoa duen kudeaketa-tresna bat, indar arautzailerik ez duena.

3.- INDARRALDIA:

Diru-laguntzen Plan Estrategiko hau 2020-2022 aldian egongo da indarrean.

4.-ESKUMENA:

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da; izan ere, plan hori da diruz laguntzeko edo sustatzeko eta kudeaketa ekonomikoko jardueraren plangintza estrategikoko tresna bat, bat etorrita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikuluko e) letran xedatutakoarekin.

Beraz, Antolakuntza batzordeak, 2021ko martxoaren 25ean eginiko bileran



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

honako irizpena proposatzen dio Udal Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- 2020- 2022 Azkoitiko Udaleko diru-laguntzen plan estrategikoaren aldaketa.

MERKATARITZA sailekoa honela geratuko delarik:

MERKATARITZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: MERKATARITZA SAILA					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZ IAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Herrixen Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitiko Udalaren eta "Herrixen" Azkoitiko Merkatarien Elkartearen arteko lankidetzarako baldintzak ezartzea, elkarteari gaitasun tekniko eta materialak eskainiz, merkataritzaren zerbitzura lan egiteko.	Azkoitiko merkataritza gune berriak suspertzea eta sustatzea, eta lehendik daudenak indartzea. Herriko merkataritza errentagarriaren eta kalitatezkoaren lehiakortasuna eta eskaintza areagotuz.	30.000	Finantza keta funts propioekin egingo da Aurreko 4. kapituluaren kontura	IZENDUNA
Azkoitiko Udalerriaren lokalak alokairua sustatzeko laguntzak	Azkoitiko lokal hutsak betetzea edota jardueretan belaunaldiaren aldaketa sustatzea, Ekintzaile berrien bitartez.	Azkoitiko udalerriaren, merkataritza dentsitate txikiko eta lehentasunezko eremuetan merkataritza berreskuratzea eta indartzea eta eremu horiei bizi ematea. Era berean,	25.000	Finantza keta funts propioekin egingo da Aurreko 4. kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

		ekintzaileek jarduera berriak martxan jartzeko aukerak izatea.			
Azkoitiko Udalerrian merkataritza sustatzeko laguntzak	Azkoitiko Merkatariek (elkartu naiz Elkartu gabeak), herrian Ekintza ezberdinak antolatzeke laguntza ematea.	Azkoitiko merkatariek beraien Negozioetan kalitatezko zerbitzua ematea eta promozio kanpaina bateratuak egitea Herriko eskaintza hobetuz.	92.000	Finantza keta funts propioekin egingo da Aurreko IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGO KA

BIGARRENA.- 7/1985 Legearen 70.2 artikularekin bat, behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Azkoitiko udalaren web orrian eta Gipuzkoako Atarian argitaratuko da.

Antolakuntza Batzordeak, 2021ko martxoaren 25ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz, Iraitz Otaño, Ainara Goenaga.”

Ana Azkoitia andreak dio aldaketa planteatzen dela merkataritza sustatzeko laguntzen lerroaren kopurua aldatzen baita.

Jose Joakin Etxaniz jaunak alde bozkatuko dutela dio.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarburen, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko Udalaren 2020-2022 dirulaguntzen Plan Estrategikoren aldaketa onartzea aho batez erabaki du.

8.- 2020-2022 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETEN ESKUMENA ESKUORDETZEA.

Alkate Jk. irakurri du Idazkariak eta Kontu-hartzaileak bidalitako oharra, puntua mahai gainean uzteko eskatuz.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarburen, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko Udalaren 2020-2022 dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketen eskumena eskuordetzea mahai gainean uztea aho batez erabaki du.

9.- AZKOITIKO UDALA, ELKARGUNE-ZUBIAURRE INSTITUTUA ETA SAN JOSE EGOITZAREN 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENEN ETA ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Ana Azkoitia andreak Azkoitiko Udala, Zubiaurre-Elkargune Institutua eta San Jose Egoitzaren 2020ko datuak eman ditu, bai aurrekontuaren emaitzari buruzkoak, bai gerakinari buruzkoak, eta abar.



10.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Ondoren, aurrekontuari buruzko informazioa era honetan eman da:

	Behin bet. aurr. <i>Pres. def.</i>	Baimendua <i>Autorizado</i>	Erabilia <i>Dispuesto</i>	Onart. oblig. <i>Contraído</i>	Ordainketa <i>Pagado</i>
Oraingo ekitaldia/Ej. <i>corriente</i> GASTUAK	17.201.382,41	5.670.701,32	5.302.260,94	1.833.489,49	1.828.471,99
	Behin bet. aurr. <i>Pres. Def.</i>	Onar. esk. Garb <i>Dchos. Recs..</i>	Bildut-garbia <i>Recaudado</i>	Kobr. Dagoena <i>Pte. cobro</i>	Itzulketak <i>Devoluciones</i>
Oraingo ekitaldia/Ej. <i>Corriente</i> SARRERAK	17.201.382,41	3.112.319,61	2.049.458,02	1.062.861,59	1.318,61

11.- GALDE ERREGUAK.

Alkate Jk. Covid19aren datuekin kezkatzen hasita daudela esan du.

Baita ere dio, San Martin auzoan aparkalekuak ahalbidetzeko baimena eman dietela terreno jabeek, hitzarmen baten bidez.

Bestalde, Iraitz Otaño jaunari erantzun dio "Portal de Subastas"en Azkoitiko bi partzela ikusi zituelako, subasta suspenditu egin dela. Udala zuzentzen saiatzen ari da, ahaleginak egiten ari da gai hau zuzentzeko. Ikusi beharko dela dio, baina posible dela 900.000€ inguru eskuratzea.

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak eta hogeita zazpi minutu direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

ALKATEA

IDAZKARIAK

**Akta honen osagarria izango da, berarekin batera elektronikoki sinatzen den audioa.*



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021PLEN0009-Akta/Acta ()